

# otasa

OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

## KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK

A.	APLIKAZIOKO KONTRATAZIO ESPARRUA .....	2
B.	LEGEAREN ERAGINPEKOAK DIREN KONTRATUAK .....	3
1.	KONTRATU MOTAK.....	3
2.	KONTRATAZIO ORGANOA .....	3
3.	KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK.....	4
3.1.	Gaitasun baldintzak.....	4
3.2.	Kontratatzeko debekuaren eraginpean ez egotea.....	4
3.3.	Gutxieneko kaudimeneko baldintzak.....	4
3.4.	Sailkapena .....	5
4.	KONTRATUAREN ELEMENTUAK .....	5
4.1.	Kontratuaren xedea .....	5
4.2.	Kontratuaren iraupena.....	5
4.3.	Prezioa.....	5
5.	KONTRATUA PRESTATZEA.....	6
5.1.	Hasiera .....	6
5.2.	Baldintza Agiriak.....	6
5.3.	Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria.....	6
6.	ESLEIPEN PROZEDURAK .....	7
6.1.	Kontratu txikiak.....	8
6.2.	Gainerako kontratuak.....	8
C.	ERREKURTSOAK .....	16
D.	KONTRATATZAILEAREN PROFILA.....	16

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

### A. APLIKAZIOKO KONTRATAZIO ESPARRUA

OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A. (aurrerantzean, OTASA) 2006ko abenduaren 1ean Oartzungo Udalak eraturako elkarte publiko bat da. Udalak dauka elkartearen akzioen % 100a.

Elkartearen helburua da Oartzunuen turismoa eta aisialdia sustatzea, garatzea eta bultzatzea.

Bere helburuak betetzeko, elkarteak honako zeregin hauetarako ahalmena du:

- a) Oartzunuen egingo diren turismo garapenerako jarduerak sustatu, planifikatu eta koordinatzea.
- b) Oartzunuen paisaia eta hainbat arlotan duen aberastasuna –hala nola, natura, monumentuak, kultura eta turismoa- defendatu, babestu, zaindu eta ezagutaraztea.
- c) Oartzunuen turismo-sektorea sustatzeko eta turismo eskaintza hobetzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu eta sustatzea.
- d) Oartzunek turismo-merkatuan duen presentzia aktiboa sustatzea, eta ekintzak eta gestioak egitea –herrian bertan zein herritik kanpo- herriaren beraren turismo-irudia hobetzeko.
- e) Herriko turismo-industria zabaltzen eta indartzen dituzten baliabideak, ondasunak eta zerbitzuak sendotzea, bisitarien harrerarekin zerikusia duten jarduerak sendotzeko proiektuak, publikoak zein pribatuak, bultzatuz.
- f) Instalazio publiko eta pribatuak sortzeko aukera bultzatu eta babestea, betiere denetariko kultura-, jolas- edo merkataritza-jarduerak aurrera eramatea ahalbidetzen badute, herriaren turismo-erakarmenaren mesedetan.
- g) Biltzarrak, batzarrak, ikasketa-jardunaldiak, espezializazio-ikastaroak, eta abar, kudeatu, sustatu eta erakartzea negozio-turismoa bultzatzeko.
- h) Errendimendu hobea lortze aldera, herriaren eta inguruaren turismo-garapena xedetzat duten erakunde publiko edota pribatu guztien jarduna koordinatzea.
- i) Turismo eta aisialdiko ekipamenduei buruzko edozein hirigintzako azterlan, proiektu eta plan tekniko egitea, aldatzea, sustatzea eta gauzatzea, lurzorua erregimenaren araudian aurreikusitako hirigintza-kudeaketa osagarria barne.
- j) Turismoko eta aisialdiko ekipamenduen edozein urbanizazio-, eraikuntza- eta azpiegitura-lan gauzatzea Oartzungo udalerrian.
- k) Eraikita dauden edo eraikitzen ari diren obrak eta eraikinak eskuratu, besterenganatu eta transmititzea, eta lagatzea edo errentan ematea, edota zergapetzea.
- l) Turismo-informazioko argitalpenak landu eta banatzea Oartzunuen turismo-arloko baliabide, ondasun eta zerbitzuak zabaltzeko, eta mota guztietako zabalkunde-kanpainak egitea turismoari buruzko alderdi soziokulturalak ezagutarazteko eta horietan hezteko.

# otasa

## **OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.**

- m) Oiartzungo turismo-jardueraren egoera aztertzea, azterlanak eta ikerketak egiteko aukera bultzatuz egungo turismo-arazoak identifikatzeko, eta herriaren turismo-garapenerako egokienak direla iritzitako neurriak proposatu edo hartzea.
- n) Beharrezkoak diren gestio guztiak egitea edonolako ekarpen ekonomikoak lortzeko proiektu turistiko publiko edota pribatuak finantzatze aldera.

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean (aurrerantzean, SPKL edo Legea) xedatutakoaren arabera, zehazki 3.1.h) artikuluan, OTASA sektore publikoaren zati da, baina, Legeko 3.2 eta 3.3 artikuluei jarraiki, ez da Administrazio Publikoa eta ez ditu botere esleitzaitzat hartzeko aurreikusitako ezaugarriak, beraz, 321 eta 322 artikuluetan hartarako ezarritako aginduak aplikatu behar zaizkio.

OTASAK egiten dituen kontratuak kontratu pribatuak dira, eta aipatutako SPKL-ren 321 eta 322 artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Ondorio, aldaketa eta amaierari dagokienez aplikagarriak diren zuzenbide pribatuko arauak ezarriko zaizkie. Era berean, ondorio eta amaierari dagokienez, epaitegi zibilarri dagozkio, baina kontratuen prestakuntza eta esleipenari dagokienez epaitegi kontentzioso-administratiboari dagozkio.

OTASAK egiten dituen kontratuak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

- 1. Legearen eraginpekoak ez diren kontratuak, eta, beraz, aplikatzekoak zaizkien arau berezien eraginpekoak direnak. Legearen 4-11 artikuluetan eta 321.6 artikuluan deskribatutako kontratuak dira. Jarraibide hauek ez zaizkie aplikatu behar.
- 2. Legearen eraginpekoak diren kontratuak.

## **B. LEGEAREN ERAGINPEKOAK DIREN KONTRATUAK**

### **1. KONTRATU MOTAK**

OTASAK egiten dituen obra kontratuak, obra emakidak, zerbitzu emakidak, hornidura kontratuak eta zerbitzu kontratuak barne jarraibide hauen eta SPKL-ren 12-18 artikuluetako arauen arabera kalifikatuko dira, eta gainerako kontratuak aplikagarriak diren administrazio zuzenbideko edo zuzenbide pribatuko arauen arabera kalifikatuko dira.

### **2. KONTRATAZIO ORGANOA**

Kontratatzeko ahalmena OTASAREN Estatutuetan eta aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauetan xedatutakoaren arabera izango da.

# otasa

## **OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.**

Kontratazio organoa Administrazio Kontseilua da, organo horrek kontratazioaren arloan kontseilari delegatuaren alde edota gerentearen alde eman ditzakeen ahalordeak aparte utzi gabe.

Hala badagokio, bidezkoztat jotzen dituen pertsoneri kontratuarekin lotutako jardun zehatzak gauzatzeko ahalmena eman ahal izango die kontratazio organoak.

### **3. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK**

OTASArekin kontratatu ahal izango dute honako betekizun hauek betetzen dituzten eta hori egiaztatzen duten kontratistek:

#### **3.1.Gaitasun baldintzak**

Legearen 65. artikuluan aurreikusitakoak dira.

Baina 66. artikulua (pertsona juridikoentzat), 67. artikulua (enpresa komunitarioentzat edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatueta enpresentzat), 68. artikulua (enpresa ez-komunitarioentzat), 69. artikulua (enpresa elkarteentzat) eta 70. artikulua (bateragarritasun-baldintza bereziei buruzkoa) ere aplikatuko dira.

Gaitasuna 84. artikuluari jarraiki egiaztatuko da.

#### **3.2.Kontratatzeke debekuaren eraginpean ez egotea**

Legearen 71. artikulua aplikatuko da, kontratatzeke debekuei buruzkoa, eta 85. artikulua, kontratatzeke debeku horien eraginpean ez egotea frogatzeko moduei buruzkoa, aplikatuko dira.

#### **3.3.Gutxieneko kaudimeneko baldintzak**

Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionaleko gutxieneko baldintzak Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian kasuan-kasuan ezarritakoak izango dira, eta bertan aurreikusitako moduan egiaztatuko dira.

Agiri horretan, kaudimena justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak ez ezik, kaudimen hori egiaztatzeke gutxieneko atalaseak ere identifikatuko dira.

Legearen 74. (kaudimen eskakizuna), 75. (kaudimena kanpoko baliabideen bitartez integratzea) eta 76. (kaudimen-baldintzen zehaztapena) artikulua aplikatuko dira.

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

Kaudimena 86. artikuluari jarraiki egiaztatuko da, eta 87. artikulua (kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren egiaztapena), eta 88., 89., 90. eta 91. artikulua (kaudimen tekniko edo profesionalaren egiaztapena) aplikatuko dira.

### **3.4.Sailkapena**

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian hala jasoz gero, Legearen 77.1 artikuluan aurreikusten diren kasuetan, kaudimen eskakizuna sailkapen eskakizunarengatik ordezkari daiteke.

## **4. KONTRATUAREN ELEMENTUAK**

### **4.1.Kontratuaren xedea**

OTASAK bere helburu instituzionalak bete eta gauzatzeko beharrezkoa denean baino ez ditu egingo kontratuak. Proiektatutako kontratuaren bidez bete nahi diren premiak zein motatakoak diren eta haien hedapena, baita premia horiek betetzeko kontratuaren xedearen egokitasuna eta edukia ere, zehatz-mehatz azalduko dira eta kontratua prestatzeko dokumentazioan agerraraziko dira.

Kontratuaren xedea Legearen 99. artikuluan xedatutakoa aplikatuz ezarriko da.

### **4.2.Kontratuaren iraupena**

OTASAK kontratuen iraupena finkatuko du, Legearen 29. artikuluan xehatutakoa aplikatuz, eta prestazioen izaera, finantzaketaren ezaugarriak eta prestazioen gauzatzea aldizka konkurrentziaren mende jartzeko beharra kontuan hartuta.

Egin litezkeen luzapenak, hala badagokio, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian aurreikusiko dira esan-bidez.

40.000 euro (BEZ gabe) baino gutxiagoko zenbatekoa duten obra kontratuak eta 15.000 euro (BEZ gabe) baino gutxiagoko zenbatekoa duten hornidura eta zerbitzu kontratuak, zuzenean esleitzekoak badira, gehienez urtebeteko iraupena izango dute, eta ezingo dira luzatu.

### **4.3.Prezioa**

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontuari, balio zenbatetsiari eta prezioari dagokionez, Legearen 100., 101. eta 102. artikuluetako arauak aplikatuko dira, Administrazio Publiko ez izatearen eta botere esleitzailerik ez izatearen ondoriozko egokitzeekin.

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

Prezioen berrikuspena dagokion Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian aurreikusi baldin bada egingo da.

### 5. KONTRATUA PRESTATZEA

#### 5.1.Hasiera

Zuzeneko esleipena bidezkoa den kasuetan izan ezik, kontratazioa hasteko, kontratazio organoak erabakia hartu beharko du. Kontratazio erabakiak honako hauek jasoko ditu: proiektatutako kontratuaren bitartez bete nahi diren premien nondik norakoak eta hedadura, eta kontratu horren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko.

#### 5.2.Baldintza Agiriak

40.000 euroko (BEZ gabe) zenbatekotik gorako obra kontratuetan eta 15.000 eurotik (BEZ gabe) gorako hornidura eta zerbitzu kontratuetan Baldintza Agiriak sortu behako dira ezinbestean. Kasu horietan, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiriarekin batera Baldintza Teknikoen Agiria ere beharrezkoa izango da.

Agirian bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan kontratuetako subrogazio baldintzen berri emango da, SPKL-ren 130. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

#### 5.3.Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiriak, prozedura bakoitzaren berezko xehetasunez eta kontratu mota bakoitzari dagozkion berezitasunekin, ondoko atalak izan beharko ditu:

- Lizitazioaren publizitatea eta kontratazio profiltera iristeko bidea.
- Kontratuaren xedea, mota, kodea eta, baldin badaude, loteak.
- Kontratu bidez asetu behar diren premiak eta kontutan hartu behar diren alderdi guztiak.
- Lizitazio oinarria den aurrekontua eta, hala badagokio, urte ezberdinetako banaketa.
- Balio zenbatetsia kalkulatzeko erabilitako metodoa.
- Finantzaketa.
- Kontratazio izaera duten agiriak.
- Kontratu iraupena eta, hala badagokio, luzapenen zehaztapena.
- Esleipen prozedura eta espedientea izapidetzeko era.
- Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko dokumentuak, proposamenen edukia eta aurkezteko era eta epea.
- Kontratataren hautaketa irizpideak: gaitasuna, ahalmena, kontratatzeko debekurik eza, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa (egiaztagiriak eta gutxieneko atalaseak).

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

- Esleipen irizpideak.
- Onartutako proposamenen irekiera eta ebaluaketa.
- Kontratuaren esleipena eta jakinarazpena.
- Esleipendunak aurkeztu beharreko egiaztagiriak eta epea.
- Kontratu formalizazioa eta epea.
- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.
- Alderdien eskubide eta betebeharrak.
- Prezioaren ordainketa baldintzak eta era.
- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.
- Ez-betetze partzialak kontratua suntsiarazteko arrazoi izango diren kasuak.
- Kontratuaren harrera eta kontratatutako prestazioari dagokion berme epea.
- Zesioa eta azpikontratazioa.
- Kontratastak datuen babesari buruz indarrean dagoen araudia errespetatzeko duen betebeharra.
- Komunikazioak elektronikoki egitea.
- Erregimen juridikoa eta epaitegiak.

Osagarri gisa, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiriak, honako alderdiak eska ditzake:

- Aldagaiak edo hobekuntzak: onartzen diren edo ez, eta baldintzak, mugak, motak eta kontratuko zein alderdietan onartzen diren.
- Sailkapena.
- Behin behineko eta behin betiko bermeak.
- Kontratu aldaketak: kontratua aldatu daitekeen edo ez eta, egiterik badago, zein baldintzetan izan daitekeen.
- Prezioaren berrikuspena: egingo den edo ez, eta egingo bada, formula edo indize ofizial aplikagarria.
- Atzerapenengatik eta kontratua gaizki gauzatzegatik aplikagarriak diren zehapenak.
- Konfidentzialtasuna eta sekretu betebeharra.
- Jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideen transferentzia.
- Kontratastaren erantzukizuna kontratua betetzerakoan eragindako kalteengatik.
- Beste edozein itun, klausula eta baldintza, zuzenbide ordenamenduaren aurkakoak ez badira.

## 6. ESLEIPEN PROZEDURAK

Legaan aurreikusitakoa betetzeko esleipen prozedurak adieraziko dira ondoren, kontratu moten eta horien zenbatekoen arabera.

# otasa

## **OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.**

Hala ere, atal honetan jasoko dena aparte utzi gabe, kontratazio organoak elkarriketa lehiakorreko prozedurara edo berrikuntzarako elkartze prozedurara jo dezake, SPKL-ren 172-176. eta 177-182. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta artikulua horietan aurreikusitako ondorioekin.

Horrez gain, kontratazioa arrazionalizatzeko sistemetara ere jotzeko aukera izango du, esaterako, esparru-akordioetara, eskuratze sistema dinamikoetara edota hornitzaileen homologaziora. Sistema horietan sartzeko prozedurak gardena eta diskriminaziorik gabea izan beharko du, eta kontratatzailearen profileen argitaratu beharko da.

### **6.1.Kontratu txikiak**

Kontratu txikiak dira 40.000 euro (BEZ gabe) baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten obra kontratuak eta 15.000 euro (BEZ gabe) baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten zerbitzu eta hornidura kontratuak.

Kontratu horiek zuzenean esleitu ahal izango zaizkio jarduteko gaitasuna duen eta kontratuaren xede den prestazioa egiteko beharrezkoa den gaikuntza duen edozein enpresabururi.

Kasu horietan, kontratazio organoak txosten bat egin beharko du kontratuaren beharra arrazoituz eta justifikatuz ez dela ari kontratuaren xedea aldatzen ezarritako atalaseak aplikatzea saihesteko asmoz. Era berean, gastua onartu beharko da eta dagokion faktura sartu beharko da bertan, zeinak Legea garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko dituen.

Gainera, obra kontratuen kasuan, obren aurrekontua gehitu beharko da, proiektua egotearen kaltetan izan gabe, hala badagokio. Halaber, lanek obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten dietenean, ikuskapen bulegoei edo unitateei txostena eskatu beharko zaie.

Kontratu txikiak formalizatu direla egiaztatuko da aipatutako dokumentuen existentziarekin.

Alabaina, prozedura irekia, murriztua edo negoziatua ere aukeratu ahal izango dira, eta jarraian xedatutakoa aplikatu beharko da.

### **6.2.Gainerako kontratuak**

Goian aipatutako balio zenbatetsia baino handiagoa duten kontratuen kasuan, esleipena prozedura irekia, murriztua edo negoziatua bideratzearen bidez gauzatuko da, eta Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian adierazi beharko da aukeratutako prozedura zehatza.



# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

### 6.2.1. Esleipen prozeduren inguruko orokortasunak

#### Hasiera

Kontratazioa hasteko, kontratazio organoak erabakia hartu beharko du. Kontratazio erabakiak honako hauek jasoko ditu: proiektatutako kontratuaren bitartez bete nahi diren premien nondik norakoak eta hedadura, eta kontratu horren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko.

#### Baldintza Agiriak

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria sortuko da, baita Baldintza Teknikoen Agiria.

Agirian bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratu etako subrogazio baldintzen berri emango da, SPKL-ren 130. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

#### Publizitatea

Lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

#### Proposamenak aurkezteko epea

Proposamenak aurkezteko epea Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian zehaztuko da, proposamen horiek prestatzeko behar den denbora kontuan hartuta, kontratuaren konplexutasuna eta SPKL-n ezarritako gutxieneko epeak ikusirik, kontratazio organoaren iritziz epe hori laburtzea justifikatzen duten ezohiko zirkunstantziak agertzen direnean izan ezik.

#### Proposamenak aurkezteko modua

Proposamenek baldintza agiriak eta lizitazioa arautzen duten gainerako dokumentuak errespetatu beharko dituzte, eta proposamenak aurkezteak esan nahi du baldintza guztien edukia onartzen dela, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta gutunazal itxietan aurkeztu beharko dira, kasuan kasuko Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian zehazten den moduan.

Lizitatzailerako bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du.

#### Esleipen irizpideak

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

Kontratua esleitzeko eta haztatzeko esleipen irizpideak kontratazio organoak finkatuko ditu, eta kontratua proposamenik onena aurkezten duenari esleituko zaiola bermatuko dute.

Normalean esleipen irizpide ugari erabiliko dira, ekonomikoak eta kualitatiboak izango direnak, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta, nahiz eta, aldez aurretik justifikatuta, kostu-eraginkortasun erlazio onenari erantzuten dion planteamendu batean oinarritutako irizpideen arabera ere esleitu ahalko diren kontratuak, prezioan edo kostuan oinarrituta, hala nola bizi zikloaren kostua kalkulatzeko.

Irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak eta, besteak beste, 145.2 artikuluko 1, 2 eta 3 puntuetan jasotakoan izan daitezke. Irizpide kualitatibo horiekin batera kostuekin lotutako irizpide bat ezarri beharko da, prezioa edo errentagarritasunean oinarritutako planteamendu bat izan daitekeena, hala nola bizi zikloaren kostua kalkulatzeko.

Dena den, esleipen irizpideak lizitazio iragarkian eta Baldintza Ekonomiko-Administratiboan Agirian adieraziko dira. Kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak izango dira, modu objektiboan formulatuak, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak erabat errespetatuz, eta kontratazio organoari erabakitzeke askatasun mugagaberik eman gabe. Gainera, proposamenak lehia eraginkorreko baldintzetan ebaluatzeko aukera bermatu beharko dute, eta lizitatzailerik emandako informazioa modu eraginkorrean egiaztatzea ahalbidetuko duten zehaztapenak izango dituzte, proposamenek esleipen irizpideak zenbateraino betetzen dituzten ebaluatzeko. Halaber, esleipen irizpide horiek kontratazio organoaren beharrei ahalik eta hoberen erantzungo dieten kalitate handiko prestazioak lortzea ahalbidetu beharko dute.

Esleipen irizpide bakarra erabiltzen den kasuetan, irizpide horrek kostuekin lotuta egon beharko du, prezioa edo errentagarritasunean oinarritutako planteamendu bat izan daitekeelarik. Esleipen irizpide ugari erabiltzen diren kasuetan, berriz, irizpideak zehazterakoan, ahal dela, lehentasuna emango zaie baldintza agirietan ezarritako formulak aplikatuz lortutako zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeelarik, kontratuaren xedearen ezaugarriei erreferentzia egiten dieten irizpideei.

Formulen aukeraketa espedientearen justifikatu beharko da.

Edozein kasutan, formulak aplikatuz kuantifikatu daitezkeen irizpideen arabera egiten den proposamenen ebaluazioa egin aurretik, inguruabar hori betetzen ez duten gainerako irizpideen araberrako ebaluazioa egin beharko da, eta agiri bidez jasoko da. Aipatutako aurretiko ebaluazio hori publiko egingo da formulak aplikatuz ebaluatuko diren proposamenen elementuak jasotzen dituen sobrearen irekiera egiten den ekitaldian.

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

Prezioa soilik kontuan hartzen denean izan ezik, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian zehaztu beharko da irizpide bakoitzari emandako haztapen erlatiboa, zeina gehieneko zabalera egokia duen balio banda baten bidez adierazi ahal izango den. Esleipen prozedura fase bat baino gehiagotan antolatzen bada, irizpideak horietako zeinetan aplikatuko diren adieraziko da, eta prozesuan jarraitzeko irizpide kualitatiboetan puntuazioaren % 50eko gutxieneko atalasea ezarriko da.

Esleipen irizpideak aplikatu ondoren bi proposamen edo gehiagoren arteko berdinketa gertatzen den kasuetarako, kontratazio organoak berdinketa hausteko berariazko esleipen irizpideak ezarri ahal izango ditu Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian, SPKL-ren 147. artikuluan xedatutakoarekin bat.

### Proposamenen sailkapena eta esleipena

Kontratuaren konplexutasun tekniko edota ezaugarri bereziek hala eskatzen dutenean kontratazio mahaiak eratu daiteke. Kontratazio mahaiak izango da, kasu hauetan, aurkeztutako egiaztagiriak kalifikatu, proposamenak baloratu eta kontratazio organoari sailkapen proposamena luzatuko diona. Kontratazio mahaiaren osaera baldintza agirian zehaztuko da.

Kontratazio mahaiak edo kontratazio organoak gehiengotik gutxienerako ordenean sailkatuko ditu SPKL-ren 149. artikularen arabera anormaltzat jo ez diren onartutako proposamenak, gero kontratazio organoari dagokion proposamena egiteko, sailkapena mahaiak egiten duen kasuetan. Sailkapen hori burutzeko, baldintza agirian jasotako esleipen irizpideei jarraituko zaie eta horretarako nahi adina txosten tekniko eskatu ahal izango dira. Kontutan hartu beharreko irizpide bakarria prezioa denean, prezio baxuena duen proposamena izango da onena.

Kontratazio organoak mahaiaren proposamena onartutakoan, proposamen onena aurkeztu duen lizitatzailerari, Legearen 145. artikularen arabera, eskatuko dio 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, 140. artikuluko 1. puntuko a)-c) idatz zatietan aipatzen diren inguruabarrak justifikatzen dituzten agiriak aurkezteko, baldin eta aldeztu aurretik aurkeztu ez baditu, bai lizitatzailerarenak eta baita haien gaitasunetara jo duen beste enpresenak ere, 140.3 puntuko bigarren paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe; kontratua gauzatzeko 76.2 artikularen arabera erabiliko edo atxikiko dituen baliabideak eskura izatea justifika dezala, bai eta dagokion behin betiko bermea eratu izana ere.

Errekerimendua ezarritako epean behar bezala burutzen ez bada, lizitatzailerak bere proposamena kendu duela ulertuko da. Kasu horretan, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio, zehapen gisa, eta eskaera berdina luzatuko zaio hurrengo lizitatzailerari, proposamenak sailkatuak geratu diren ordena errespetatuz.

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

Kontratazio organoak, agiriak jaso eta hurrengo 5 egun balioduneko epearen barruan esleitu beharko du kontratua. Prozedura negoziatuetan kontratuaren behin betiko baldintzak esleipenean zehaztu eta ezarriko dira.

Ezingo da lizitazio bat hutsik aitortu, baldintza agirian ezartzen diren irizpideen arabera onargarria den proposamenik dagoen kasuetan.

Esleipenaren ebazpena behar bezala arrazoitu beharko da, hautagaiei eta lizitatzaillei jakinaraziko zaie, kontratua zein epetan formalizatuko den adieraziz, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

### Kontratuaren formalizazioa

Kontratua idatziz formalizatuko da, esleipenaren jakinerazpenetik kontaktzen hasi eta 15 egun balioduneko epearen barruan.

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirietan ez badaude, izenpetzen den kontratuan sartu beharko dira, nahitaez, SPKL-ren 35. artikuluan jasotako gaiak.

Inolaz ere ezingo da kontratuan sartu, aurkeztutako proposamenetik ondorioztatutako zehaztasun eta esleipen ekitaldiko xehetasunez gain, baldintza agirietan aurreikusi ez den eskubide eta betebeharririk.

Kontratuaren formalizazioa, kontratuarekin batera, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

### Kontratuaren exekuzioa

Gorago adierazi den moduan, kontratuen ondorio, aldaketa eta amaierari dagokienez, aplikagarriak diren zuzenbide pribatuko arauak hartuko dira kontuan.

#### *6.2.2. Prozedura irekiaren berezitasunak*

### Mugak eta proposamenak aurkezteko eta lizitazio iragarkia argitaratzeko epea

Interesa duen enpresaburu orok aurkez dezake proposamena, eta lizitatzailleekin kontratuaren baldintzen negoziazio oro baztertuta geratuko da.

Proposamenak aurkezteko epea gutxienez 15 egunekoa izango da zerbitzu eta hornidura kontratuen kasuan, lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

egunetik kontatzen hasita, eta gutxienez 26 eguneko obra, obra emakida eta zerbitzu emakida kontratuen kasuan.

### Proposamenen azterketa, esleipen proposamena eta esleipena

Kontratazio mahaiak lehenik Legearen 140. artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatuko du, zeina lizitatuzaileek proposamena ez den beste sobre edo artxibo elektronikotatik aurkeztu beharko duten. Ondoren, proposamenak ireki eta aztertuko ditu, eta esleipen proposamena egingo dio kontratazio organoari, esleipenduna hautatzeko aplikatu beharreko irizpideak haztatu ondoren.

Legearen 145. artikularen arabera esleipen irizpide bat baino gehiago erabiltzen direnean, lizitatuzaileek bi sobre edo artxibo elektronikotatik aurkeztu beharko dute proposamena: bata, balio judizio baten arabera haztatu beharreko irizpideekin baloratu beharreko dokumentazioarekin, eta bestea formulak aplikatuz kuantifikatu daitezkeen irizpideekin baloratu beharreko dokumentazioarekin.

Nolanahi ere, proposamenak, aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez ere 20 eguneko epean ireki beharko dira.

Proposamen ekonomikoa ekitaldi publikoan irekiko da, lizitazioan bitarteko elektronikoak erabil daitezkeela aurreikusten denean izan ezik.

Esleipen proposamenak ez du proposatutako lizitatuzailearen aldeko inolako eskubiderik sortuko, baina kontratazio organoak ez baldin bada kontratua egindako proposamenaren arabera esleitzen, arrazoitu egin beharko du erabakia.

Kontratuaren esleipenduna hautatzeko irizpide bakarria prezioa denean, esleipena gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratua esleitzeko irizpide bat baino gehiago hartu behar direnean kontuan, edo irizpide bakarria erabiliz bizi zikloaren kosturik txikiaren baldin bada, berriz, esleipena egiteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, Baldintza Ekonomiko-Administratiboan Agirian beste bat ezarri ezean.

### Prozedura ireki erraztua eta oso erraztua

Legearen 159. artikuluan aurreikusten diren kasuetan, prozedura ireki erraztua aplikatu ahal izango da, artikuluan bertan xedatutakoa kontuan izanik. Era berean, 159.6. artikuluan aurreikusten diren kasuetan prozedura ireki oso erraztua aplikatu ahal izango da, bertan jasotzen diren berezitasunekin. Bi kasutan, Administrazio Publikoa eta botere esleituzailea ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

### Aplikatzeko gainerako arauak

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian edota jarraibide hauetan esan bidez aurreikusten ez den guztian, Legearen 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan eta horiei lotzen zaien eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatu beharko da, Administrazio Publikoa eta botere esleitzailerak ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

### *6.2.3. Prozedura murriztuaren berezitasunak*

#### Karakterizazioa

Edozein enpresa interesdunek aurkeztu ahal izango du parte hartzeko eskaera, lizitazio deialdi bati erantzunez. Proposamena, aldiz, kontratazio organoak, aurkeztutako eskaerak eta kaudimena ikusirik, aukeratutako enpresaburuek bakarrik aurkeztu ahal izango dute.

Debekatuta dago eskatzaile edo hautagaiekin kontratuaren baldintzak negoziatzea.

#### Parte hartzeko eskaerak

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea gutxienez 15 egunekoa izango da, lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Eskaera horiekin batera 140. artikuluan aipatutako dokumentazio aurkeztu beharko da, behin-behineko bermea eratu dela egiaztatzen duen agiria izan ezik.

#### Hautagaien aukeraketa, gonbidapena eta proposamenak

Lizitazioa iragarri aurretik, kontratazio organoak kaudimen irizpide objektiboak ezarri beharko ditu, eta irizpide horien arabera aukeratuko dira proposamenak aurkezteko gonbidapena jasoko duten hautagaiak. Hautagaiak aukeratzeko erabiliko diren irizpide edo arau objektiboak eta ez-diskriminatzaileak lizitazio iragarkian adieraziko dira, baita proposamenak aurkezteko gonbidapena jasoko duten hautagaien gutxienerako kopurua eta, hala badagokio, gehieneko kopurua. Gutxienez bost enpresabururi gonbidatuko zaie prozeduran parte hartzera.

Kontratazio organoak eskatzaileen nortasuna eta kaudimena egiaztatu ondoren, hurrengo fasera igaroko direnak hautatuko ditu, eta, aldi berean, proposamenak aurkezteko gonbidapena egingo die, idatziz.

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

Proposamenak aurkezteko epea gutxienez 10 egunekoa izango da, gonbidapena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

### Esleipena

Kontratuaren esleipenerako prozedura irekirako aurreikusitakoa aplikatuko da, Legearen 140. artikuluan aipatzen den dokumentazioa alde aurretik kalifikatzeko beharrari buruzkoa izan ezik.

### Aplikatzeko gainerako arauak

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian edota jarraibide hauetan esan bidez aurreikusten ez den guztian, Legearen 160., 161., 162., 163., 164. eta 165. artikuluetan eta horiei lotzen zaien eta aplika daitezkeen gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatu beharko da, Administrazio Publikoa eta botere esleitzailerik ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

#### *6.2.4. Prozedura negoziatuaren berezitasunak*

### Negoziatu beharreko gaia karakterizatzea eta mugatzea

Prozedura negoziatua Legearen 167. eta 168. artikuluetan zerrendatutako kasuetan erabili ahal izango da.

Kontratazio organoak, hautagai batekin edo gehiagorekin kontratuaren baldintzak negoziatu ondoren, behar bezala justifikatuta aukeratutako lizitatzailerari esleituko zaio kontratua.

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian zehaztuko dira enpresekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak, hala badagokio; kontratazio organoaren premien eta kontratatu beharreko hornidura, obra edo zerbitzuetarako eskatzen diren ezaugarrien deskribapena; negoziatzeko jarraituko den prozedura, uneoro negoziazioaren gardentasun handiena, publizitatea eta parte hartzen duten lizitatzailerik arteko diskriminaziorik eza bermatuko dituen; kontratuaren xede den prestazioaren elementuak, proposamen guztiek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak osatzen dituztenak, eta esleipen irizpideak.

### Publizitatea

Legearen 168. artikuluan aurreikusten diren salbuespenezko kasuetan izan ezik, gainerakoetan kontratazio organoak lizitazio iragarkia argitaratuko du kontratatzailearen profilean.

### Proposamenak eskatzea

# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

Kontratuaren xedea betetzeko ahalmena duten gutxienez hiru enpresari eskatuko zaizkie proposamenak.

### Aplikatzeko gainerako arauak

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian edota jarraibide hauetan esan bidez aurreikusten ez den guztian, Legearen 166., 169., 170., eta 171. artikuluetan eta horiei lotzen zaien eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatu beharko da, Administrazio Publikoa eta botere esleitzailerak ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

## **C. ERREKURTSOAK**

OTASAREN kontratuen prestaketari eta esleipenari lotutako edozein arazori dagokionez, bide administratiboan jarri ahal izango da errekurtsua, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen xedatutakoaren arabera.

## **D. KONTRATATZAILEAREN PROFILA**

OTASAK Internet bidez hedatuko du kontratatzailearen profila, haren kontratazio jarduerari buruzko informazioaren eta dokumentuen gardentasuna eta sarbide publikoa bermatzeko. Kontratatzailearen profilerako sarbidea izateko modua baldintza agirietan eta lizitazio iragarpenetan zehaztuko da, besteak beste.

Kontratatzailearen profilaren euskarri izango den sistema informatikoak gailu jakin bat eduki beharko du; gailu horren bitartez, bertan sartutako informazioa hedatzen hasten den unera behar bezala egiaztatuko ahal izango da.

Kontratatzailearen profilak kontratazio organoen kontratazio jarduerari buruzko edozein datu eta dokumentu jaso ahal izango du. Nolanahi ere, kontratazio organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen informazio orokorra, harremanetarako puntuak, telefono eta fax zenbakiak, posta helbidea eta helbide elektronikoa, informazioak, iragarkiak eta dokumentu orokorrak jaso beharko ditu, hala nola kontratazioarako barne jarraibideak eta dokumentu ereduak, baita egiten dituen kontratuei buruzko informazio berezia ere.

Kontratuei buruzko informazioari dagokionez, gutxienez honako informazioa argitaratu beharko da:

- a) Kontratua justifikatzeko memoria, zerbitzu kontratuen kasuan baliabide nahikorik ez dagoela adierazten duen txostena, prozedura irekia edo murriztua ez den beste



# otasa

## OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

prozedura bat erabiltzen denean kontratua esleitzeko erabilitako prozeduraren justifikazioa, kontratua arautuko duten Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria, edo agiri baliokideak, hala badagokio, eta espedientea onartzen duen dokumentua.

- b) Kontratuaren xede zehaztua, iraupena, lizitaziorako oinarritzko aurrekontua eta esleipenaren zenbatekoa (BEZ barne).
- c) Aldez aurreko informazioaren iragarkiak, lizitazioen deialdienak, kontratuak esleitzekoak eta formalizatzekoak, aldaketa eta justifikazio iragarkiak, publizitaterik gabeko negoziatuen arauetan ezarritako salbuespenekin.
- d) Kontratuaren iragarkia egiteko erabili diren bitartekoak eta iragarki horietarako estekak.
- e) Prozeduran parte hartu duten lizitatzzaileen kopurua eta nortasuna, bai eta esleipen prozedurari buruzko kontratazio mahaiaren akta guztiak ere, edo, mahaiak jardun ezean, dagokion kontratazio organoaren ebazpenak, proposamen bakoitzaren balio judizioaren bidez kuantifika daitezkeen esleipen irizpideen balorazio txostena, hala badagokio, Legearen 149.4 artikuluan aipatzen den ustezko anormaltasunean sartutako proposamenei buruzko txostenak, eta, edozein kasutan, kontratua esleitzeko ebazpena.

Era berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia, esleipen prozeduran atzera egitea, esleitu gabe uztea, errekursoak jartzea eta errekursoak jartzearen ondorioz kontratuak etetea.

Kontratu txikiei buruzko informazioa gutxienez hiru hilean behin argitaratu beharko da. Kontratu mota horietan argitaratu beharreko informazioa, gutxienez, haren xedea, iraupena, esleipenaren zenbatekoa (BEZ barne) eta esleipendunaren nortasuna izango dira, eta kontratuak esleipendunaren nortasunaren arabera antolatuko dira.

Era berean, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira deuseztatutako prozedurak, kontratazio mahaiaren osaera, baita adituen batzordeko edo erakunde tekniko espezializatuetakoa kideen izendapena ere, balio judizio baten mende dauden esleipen irizpideak aplikatzeko beharrezkoak diren prozeduretan.

Kontratua egiteari buruzko datu jakin batzuk ez argitaratzeko aukera egongo da, Legearen 154.7 artikuluko kasuetan, behar bezala arrazoituta.